


ENERGIAREN INTERNETA ETA HIRUGARREN INDUSTRIA IRAULTZA

Posted on 12/11/2011 by Naider



[Jeremy Rifkin liburu berri bat argitaratu du, **Hirugarren Industria Iraultza: nola alboko botereak energia, ekonomia eta mundua eraldatzen ari den.** Gauzak dauden bezala, iraultza industrialak lehenago edo beranduago iritsiko dela dirudi edo gu konturatu gabe iristen ari dela. Beste liburu batzuetan bezala, laster finkatuko diren joerak marraztea lortzen du egileak. Kasu zehatz honetan, liburua oso ariketa ona da gertatzen ari diren gauza asko sintetizatzeko eta egituratzeko -ez gutxiago, industria iraultza baten moduan-.](#)

Liburuaren oinarritzko tesia da **internet**aren aukera guztien garapena eta **energia berriztagarrien** aurrerapena direla industria fase berria finkatzeko bi zutabeak. Energiaren internet bat eraikiz sartuko garela. **Informazio-eredu zentralizatu eta hierarkizatu zaharra** behin betiko hautsi da jakintza eskuratzeko eta sortzeko modu berrien irrupzioarekin, forma banatua, partekatua eta sarean egituratua. Gure egunerokotasunean ikusten den zerbait da, nahiz eta oraindik ere talka egiten duen bere pribilegioei eta logikari eutsi nahi dieten eredu zaharreko posizioekin. Antzemanezinagoa da energia berriztagarriek suposatzen duten eraldaketa eta **logika aldaketa** eta nola aprobeztatuko duten Interneten erabilera egitura energetiko berri bat eraikitzeko. Baina aldaketa bat da ere gertatzen ari dena eta, egilearen esanetan, batasun hori energia berriztagarrien behin betiko hedapenerako giltzarria izango da, era berean,